


# DIARIO VASCO

## Euskal ohiturak ezagutu

*Astigarragan dago kokatua Santiagomendiko ingurugiro gunea, zelai eta baserriz inguratua. Sagardoaren prudukzioa ezagutzeko toki ezinobea beraz. Ikastetxe asko joaten dira bertara, mundu errurala, eta sagardoaren elaborazioa hobeto ezagutzeko*



*Harrigarria da, urte gutxitan, galdu den informazio piloa*

### ISASA ETA SALINAS

Enara O.E. taldeak darama proiektu hau aurrera. Enara zortzi pertsonak osatzen dute, hauen artean, biologo, pedagogo, irakasle eta. daude. Jendea ingurugiroarekiko jarrerak ezagutaraztea da beraien helburua, jarrera hauek aldarazteko. Naturari egiten ari gatzakizkion kalteen berri kontzientziatu nahi dute jendea. Santiagomendiko inguruneak baliabide desberdinak dituen, bertaratzen direnel, Astigarragako baliabide desberdinak erakusten dizkiete, beti ere ingurugiroarekiko arreta galdu gabe, gaur egun fuertekin egin behar zaion gauza baita.

### MUNDU ERRURALA EZAGUTU

Industriak izugarriko eragina izan duen arren, oraindik mundu errurala mantentzen da. Astigarragako mendiak, industriak paisaia izan duen eragina ikusteko aproposak dira, baina mantentzea lortu den

mundu errurala ezagutzeko ere. Santiagomendirako bisitaren lehen goizean, baserritako produkzioa, etnografia, lanabesak eta geologia lantzen dira. Astigarragan, sagardoaren produkzioak duen garrantzia ikusi, eta tolare zaharrak ezagutu ditzakete, gaur egungoekin parekatzeko.

Haur bat baino gehiago harritu da, Santiagomendira joan, eta esne behiek ematen dutela jakin dutenean. Beti supermerkatuan erosten zuten, fabrikari egiten zen gauza bat zela pentsatzen zuten askok.

### KALETARREN EZJAKINTASUNA

Harrigarria da, urte gutxitan, galdu den informazio piloa. Duela urte batzuk, jende gehiengoak baserriarekin erlaziorik bazuen,

gaur egun oso ezjakin gara gai haueri buruz. Haur bat baino gehiago harritu da, Santiagomendira joan, eta esne behiek ematen dutela jakin dutenean, beti supermerkatuan erosten zuten, fabrikari egiten zen gauza bat zela pentsatzen zuten askok.

### TAILERRAK

Gure ohiturak izugarri aldatu dira. Lehen kontsumitzen zen gutxia baserrian egiten bazen, gaur egun supermerkatuan erosten dugu beharrezko zaigun gehiena.

Aspaldiko eran, menbriloa egiten dute Santiagomendin arratsaldean, etiketatu eta ondoren jateko. Menbriloaren ordez, papera nahiago duenak ere, paper birziklatua egiteko aukera izango du.

Informazio gehiago nahi baduzu, eta zeure ikastetxearekin joan, jo ezazu ENARA elkartera: Sorahuze kalea 3, entresua Donostia 20003 telefono 428843